

<i>Berdintasun Zerbitzua</i>		<i>Getxoko Udala</i>
Gaia: BERDINTASUN KONTSEILUAREN BILERA		

Bileraren datuak:

Data: 2018-6-21

Lekua: RKE

Ordua: 16:30etik 18:15era.

Bertaratutakoak:

Bilgune Feminista: Uxune Iriondo Urbiztazu

Roda: Clara Lorenzo Quevedo

Ciudadanos-Herritarrak: Carlos Escalera Lana

EAJ-PNV: Elena Coria Yanguas

GUK: Susana Andollo Gonzalez

Udal Talde Sozialista: Josefina García Palacio

ELA: Elvira Lemona Díaz

Berritzegune: Emilio Martinez Hortal

Presidentzia: Keltse Eiguren Alberdi

Idazkaritza: Bego García Martínez

Eskuz-esku: Isabel Perez Ares

Gizatiar: Marga Tarazaga Brillas

Bertaratu ez direnak:

Mujeres con Voz

Talde Popularra

EH Bildu

Gai ordena

- Aurreko akta onartzea
- Jaien kanpaina 2018
- Bestelako informazioa
- Galde eskeak

Aurreko akta onartzea

Aurreko bilerako akta aho batez onartu da.

Jaien kanpaina 2018

Berdintasun teknikariak 2018ko jaien kanpainaren bilakaeraren berri eman du; kanpaina hori honako honetan datza:

sexu erasorik gabeko jai parekideez gozatzea.

Sentsibilizazio kanpainak logotipo bat izango du erdigunean; logotipoa sexu erasoaren aurkako Getxoko sinboloa izatea da helburua, eta udalerriko jaietan eraso sexistak gaitzestea irudikatzen duen irudi bihurtu nahi da.

Kanpaina honen bitartez, oro har, Getxoko herritarrak sentsibilizatu nahi dira, eta bereziki gazteak, baita jaietan bisitatuko gaituzten pertsona guztiak ere, emakumeen aurkako indarkeriaz eta eraso sexisten inguruan sentsibilizatuz. Edozein eraso edo abusu gertatuz gero, beste alde batera ez begiratzeko, salatzeko eta biktimari babesa emateko eskatzen du Getxoko Udalak.

- Leloa/logotipoa

Getxon PLANTO eraso sexistei / En Getxo PLANTO a las agresiones sexistas



- Mosaikoa

Gizarteak parte hartzeko, herritarrekin batera ekintza zuzen bat egin nahi da, 100 panelek eratutako mosaiko erraldoi bat eginez, 10x10 metroko tamainarekin.

Horretarako 100 pertsona inguru beharko dira. Bi dinamizatzailerik egongo dira, eta mosaikoa eratu baino 2 ordu lehenago inguratutako pertsonak sentsibilizatuko dituzte kanpainari dagokionez; aldi berean, mosaikoa eraikitzen parte hartzera gonbidatuko dituzte. Ekintza osoa bideoz grabatuko da dron baten bitartez, ondoren hedatzeko.

Jai batzordeek ere parte hartuko dute; batzordeek informazio hau zabalduko dute eta herritarrek gonbidatuko dituzte adostuko den egun eta orduan mosaikoa eratzeko parte hartzeko hurbil daitezela.

Nabarmendu behar da jai batzorde guztiek jakinarazi dutela eraso sexisten aurkako mosaikoaren iragarkia jaien egitarauetan plazaratuko dutela.

- Publizitatea

- Kanpaina Metro Bilbaon iragarriko da, Algorta, Bidezabal eta Areetako geltokietan.

- Autobusa

Bizkaibusaren Berango-Areeta linean kanpaina iragarriko da uztailaren 16tik irailaren 16ra.

- Totemak

Aurreko kanpainetan erabili diren totemak jarriko dira.

- Bestelakoak

Urtero bezala, kartelak, pegatinak eta triptikoak banatuko dira.

Bestelako informazioa

- Berdintasun teknikariak jabekuntza eskola ixtearen ondorioz antolatutako ekitaldiaren berri eman du; ekainaren 6an ospatu zen RKEEn, eta tuper-sex saioa eta ipuin erotikoak izan zituzten Inma Merino eta Virginia Imazen eskutik. 80 emakume inguru bertaratu ziren, eta parte hartzaileen partetik balorazio bikaina jaso zen.

Eskuz-eskuko ordezkariak oso balorazio positiboa egin du topaketa udalerrian bertan egin delako, eta ez beste udal batzuekin partekatuz, beste urte batzuetan bezala. Eta aurrerantzean ere ildo beretik jarraitzeko proposamena egin du; kontseiluan dauden gehienek ere bat egin dute ideia horrekin.

- Jabekuntza Eskola 2018-2019 hastearen ondoriozko topaketari dagokionez, proposatu da alde batetik ekitaldi ludikoa izatea, eta, bestetik, Emakunderi proposatzea berriki onartutako VII. Berdintasun Plana aurkez dezan, jabekuntza ardatza hizpide hartuz.
- Jakinarazi denez, aurten elkarteei zuzendutako berdintasuneko diru-laguntzak atzeratu egin dira, baina kasuan kasuko kopuruak uda baino lehen ordainduko dira.
- Berdintasun teknikariak Generoaren araberako eraginaren txostenak egiteko gidaliburuaren berri eman du; Eudelek eta Emakundek prestatu dute eta joan den astean aurkeztu zen. Gida horri esker, administrazio egintzak eta araudiak prestatzean Berdintasun Legeak botere publikoei ezarritako betebeharra dela medio udalek egin beharreko txostenak errazago egingo dituzte.

Horren haritik, jakinarazi da laster generoaren araberako eraginaren txostena izango duten arauak aurrekontuaren araua eta HAPOa izango direla.

- Ekainaren 23an RKEn egingo den jardunaldian bertaratu eta parte hartzeko gonbidapena egin da; ekainaren 23a dela medio antolatu da, "Transexualitateetara hurbiltzen" izenburupean.

Galde eskeak

Bilguneko ordezkariak Haurtzaroko sexu abusuen aurka ekainaren 24an Algortan egingo den manifestazioaren berri eman du.

Emiliok, Berritzeguneko ordezkariak, azaldu du irailetik aurrera ez dela Berritzegunean egongo, irakasle lanpostura itzuliko delako, eta, horrenbestez, ez da kontseiluan egongo.

Kontseiluaren hurrengo bilera irailean egitea proposatu da.